

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

2025.urteko eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartzen duen 2025 ekainaren 6ko Alkate ebazpenaren laburpena

BDNS(Identif.): 838162.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/838162>).

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udal-mugartearen barruan dauden eraikinen jabe diren pertsona fisikoek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta ekitaldi honetan beren eraikinak birgaitzeko jarduketak egiten badituzte.

Eskatzaileek ezin izango dute zorrik izan udal-administrazioarekin, ez eta dagokion auzo-erki-degoko administrazioarekin ere, hala badagokio.

Eskatzaileek udalerrian jabetzan dituzten etxebizitza adina dirulaguntza jaso ahal izango dituzte, baldin eta ordenantza honetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena. Helburua

Oinarri hauetan araututako laguntzen helburua da ekimen pribatuari laguntzea, udalerriko bizitegi- eta hiri-ondarea mantentzearekin, hobetzearekin eta birgaitzearekin lotutako alderdiei erantzuteko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalbatzak 2016ko azaroaren 8an onartutako ordenantza. (2017ko martxoaren 10eko ALHAO, 29. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

1. Udalak 2.000 euro izendatu ditu etxebizitzak birgaitzeko programari erantzuteko.
2. Eman beharreko zenbatekoa ez da izango, inola ere, lizentzia emateko zerga aplikatzeagatik dagokion kuotaren ehuneko 90 baino handiagoa, EIT bat aurkeztu ondoren ikusitako akatsak zuzentzeko egokitzapen-obra egiteagatik, gehienez ere 100,00 euro etxebizitza bakoitzeko.
3. Diru-laguntzak ordena zorrotzean emango dira, indarrean dagoen ekitaldirako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko azken eguna 2025eko abenduaren 31 izango da, eta, betiere, Udalean erregistratzeko EIT bat aurkeztu ondoren egin beharko da, dokumentu horrek etxebizitzaren jabea ezartzen dizkion hobekuntza- edo zuzenketa-obra egiteko obra-lizentzia eskatzen den unean.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko ekainaren 6a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO